



GAUEKO ORDUTEGIAN DIHARDUTEN OSTALARITZAKO, AISIALDIKO ETA BESTELAKO ESTABLEZIMENDUEN KOKALEKUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

SARRERA

Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak (ZHAPo) 6.7.08 artikuluan esaten du, Udalak, ordenantza espezifikoaren bitartez, murriztapenak ezarri ahal izango dituela ostalaritza, aisia eta beste hainbat jarduera instalatzeko. Izan ere, jarduera horiek bizitegi-eremuetan eta ekipamendu jakinen inguruan pilatuz gero, eta zenbait jarduerak gaueko ordutegian zabalik izateko aukera dutela kontuan izanda, alde batetik, jarduera horiek berez, bestetik, establezimendu horiek erabiltzen dituztenek eta, azkenik, establezimendu horien inguruko plaza eta kaleetan biltzen diren pertsonen zarata handia eta bibrazioak eragiten dituzte. Zarata eta bibrazio horiek, gainera, onar daitekeen muga gainditu dezakete.

Era berean, artikulua horren arabera, Udalak aukera izango du, bertan dagoen lokal-kopuruagatik, lokal gehiago zabaltzeko edo daudenak handitzeko baimenik ez emateko.

Gaur egun, PERTSONAK ZARATATIK ETA BIBRAZIOETATIK BABESTEKO ORDENANTZAK, 20. artikuluan, distantzia-mugak jartzen ditu udalerrin osoko bizitegi-areetan ostalaritzako establezimendu jakin batzuk kokatzeko. Egungo Udalbatzaren agintaldian asko eztabaidatu da araudi hori aldatzeko beharrari buruz. Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko informazio-batzordearen 2010eko ekainaren 14ko bileran horrelako establezimenduen arteko distantziak arautzeko ordenantza espezifikoa egitea proposatu zen, eta gainera ordenantza berri horretan jaso beharreko oinarritzko irizpide batzuk onartu ziren.

Beraz, ZHAPOn aurreikusitakoak garatzeko, eta Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko informazio-batzordeak emandako jarraibideak betetzearren egin da ordenantza hau. Ordenantza berri hau onartu ondoren, ordezkatu eta indarririk gabe utziko du, PERTSONAK ZARATATIK ETA BIBRAZIOETATIK BABESTEKO ORDENANTZAK, 20. artikuluan, udalerrin osoko bizitegi-areetan ostalaritzako establezimendu jakin batzuk kokatzeko jartzen dituen distantzietan buruzko araudia.

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren izaera eta helburua

1.- Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak (ZHAPo) 6.7.08 artikuluan zortzigarren atalean aurreikusitakoa gauzatzearren egin da ordenantza hau. Ondorioz, bizitegi-areetan eta ekipamendu publikoen areetan, ostalaritzako eta aisialdiko establezimendu publikoen eta asimilagarrien instalazioa mugatzea da ordenantzaren helburua, hartara, jarduera horiek, bereziki gaueko ordutegian, auzokoengan sortzen dituzten ondorio gehigarriak (batez ere zarata eta usainek eragindakoak) eragozteko eta prebenitzeko.

2.- Ordenantza antolatze-arautegi orokor bat eta 4 arautegi berezi egin dira: birmoldatze-areetako, lokal-kopuru handiko areetako, Itsasertze-arauteki eta erabilera osagarrietako areetako.

2. artikulua. Aplikazio-esparrua. Sartutako eta baztertutako jarduerak

1.- Plan Orokorrean hiri-lurzoru gisa eta barruan bizitoki-areak dituzten lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako eremuei aplikatuko zaie ordenantza hau. 3. artikuluan adierazitako eta kategoriatan sailkatutako jarduerari aplikatuko zaie.

2.- Distantziei buruzko arautegia bete beharko dute honako eskaerek: jarduera lizentziak eta establezimendu berriak irekitzekoak; establezimenduak handitu eta banatzekoak; bai eta jarduera aldatzearen egin beharreko berrikuntza eskaerek ere, baldin eta kategoria handiagoko jarduera bat jartzeko bada edo, kategoria bera izanda ere, gaueko ordutegian eragin handiagoa izango badu.

3.- Ordenantzaren arautegitik kanpo geratzen dira behin-behineko jarduerak eta denboraldikoak; esate baterako, malekoiko kintinak, barrakak, eta egun jakinetan edo jaietako guneetan jartzen diren txosnak eta beste egitura desmuntagarri batzuk.

4.- Ordenantza honen esparruan sartutako establezimenduen terraza, mahai eta aulkietarako lizentziak bere udal ordenantza espezifikoaren bidez arautuko dira. Dena den, Udalak, lizentzia horiek ematerakoan, kontuan izango ditu instalazio horiek auzokoei sor diezazkieketen zarata-arazoak. Zirkunstantzia hori bera kontuan izanda, aurrez emandako baimenak aldatu eta baliogabetu ditzake, baita area edo establezimendu jakinetan instalazio horietarako baimendutako ordutegiak mugatu ere.

3. artikulua. Sailkapena kategoriara.

1.- Jarduerak edo establezimenduak ondorengo kategoriatan sailkatzen dira, soilik ordenantza honen aplikazioaren ondorioetarako:

1.1.- **A Kategoria.**- Zarata eta usainak direla-eta garrantzi txikiko eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian eragin txikia dutenak.

Hemen sartzen dira ondorengo lokal eta instalazioak:

a. **Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen** Autonomia Erkidegoko araudiak I. taldearen barruan sartzen dituenak.

b. Elikagaiak orokorrean, edariak, ogitartekoak edo plater prestatuak saltzen dituzten elikagaien sektoreko merkataritzako establezimenduak, salmenta automatikoa egiten dutenak barne, baldin eta horien funtzionamenduko ordutegiak zarata eta bibrazioei buruzko udal ordenantzan definitu den gaueko ordutegia barne hartzen badu.

c. Jolas-establezimenduak.

1.2.- **B Kategoria.**- Batez ere usainengatik, baina baita zarata txikiengatik ere, eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian nolabaiteko eragina dutenak.

a. Hemen sartzen dira **jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen** Autonomia Erkidegoko araudiaren II. taldean jasotako zenbait jarduera: alkoholdun edariak emateko baimena izan arren, zeregin nagusia sukaldaritza jarduera dutenak, baina publikoari edariak emateko barra-zerbitzurik gabe, esaterako: jatetxeak, erretegiak, sagardotegiak, autozerbitzuak, hanburgesategiak, elkarte gastronomikoak, txokoak, eta asimilagarriak.

b. Era berean talde honetan sartzen dira edariak emateko barra-zerbitzua duten establezimenduak (taberna-jatetxea), baldin jendearentzako zuzendutako taberna gunearen azalera honako ezaugarriak baditu:

1. Gehienez 20 pertsonako edukiera, suteen kontrako araudiaren arabera kalkulatuta.
2. Ez dezala okupatu jangelaren azalaren % 25a.
3. Jatetxeko taberna-gunearen azalera eta jangelaren azalera behar bezala bereizita egotea, arkitekturako elementu finko eta iraunkorren bidez, hartara jangela taberna modura erabiltzeko modurik egon ez dadin.

1.3.- **C Kategoria.**- Garrantzi txikiko zarata eta usainengatik eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian nolabaiteko eragina dutenak.

a. Hemen sartzen dira **jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen** Autonomia Erkidegoko araudiaren II. taldean sartutako gainerako jarduerak eta ordenantza honetako B kategorian sartu gabekoak. Alkoholdun edariak emateko baimena duten lokalak dira, baina horien zeregin bakarra ez da aurreko atalean (**B kategoria**) adierazitakoa. Hemen sartzen dira: barrak, tabernak, kafetegiak, ardandegiak eta asimilagarriak.

b. Joko-establezimenduak batzuk ere, sartzen dira, esaterako joko-aretoak eta apustu-etxeak.

1.4.- **D Kategoria.**- Batez ere zaratengatik eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak, eta gaueko ordutegian eragin nabarmena dutenak.

Hemen sartzen dira **jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen** Autonomia Erkidegoko araudiaren III. eta IV. taldeetan sartutako jarduerak (jarduera berezi gisa, musika izateko baimena dutenak), hau da:

a. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegien araudiko III. taldean sartutakoak: Hau da pubak, taberna bereziak, eta abar.

b. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegien araudiko IV. taldean sartutakoak. Hau da, dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

c. Bingo aretoak eta jokorako kasinoak

2.- Udal teknikariek txosten arrazoitua egin ondoren, Udalari dagokio edozein establezimendu bere kategorian sartzea. Hori egiteko, aurkeztutako proiektuan jasotako

aurreikuspenak hartuko dira kontuan, edo bestela, legeztatu nahi den jardueraren errealitatea zein den, edozein izanda ere jarri nahi zaion izena. Establezimendu bat kategoriatan bat baino gehiagotan sartu badaiteke, distantzia arautegi zorrotzena duen hartan sartuko da.

4. artikulua. Lehentasunak eskaeretan

1.- Jarduera lizentzien eskaeretan, dokumentazio teknikoaz gain, eskalan egindako plano bat aurkeztuko da. Bertan zehazki markatuko da bai lokalaren kokalekua, bai inguruko beste lokalekiko duen posizioa. Era berean, zer-nolako jarduera egingo den eta zein kategoriatan sartzen den adieraziko da, bai ordutegiaren araudiari dagokionez eta bai ordenantza honetako arautegiari dagokionez.

2.- Lokal baterako lizentzia eskatzen bada eta, ordenantza honetan aurreikusitako zirkunstantzien pilaketa dela-eta, beste eskatzaile batek aurrez aukeratutakoarekin bateraezina bada, orduan bigarren eskaerari ezezkua emango zaio, eta aurretik aurkeztutako eskaeraren tramitazioa jarraituko da. Laburbilduz, tramitazioan lehentasuna izango du lehendabizi eta behar den bezala, bere proiektuarekin eta eskaera baloratzeko adinako dokumentazio tekniko eta guzti aurkeztutako eskaerak.

3.- Ordenantza honetan sartutako establezimendu bat jartzeko aukerari buruz egindako kontsultari baiezkoa erantzuten bazaio, horrek ez du automatikoki jarduera jartzeko eskubiderik sortzen, baldin kontsultari erantzun zitaionetik lizentzia eskatu denboran aurreko paragrafoan azaldutako zirkunstantzia gertatzen bada. Edonola ere beti lizentzia eskatutako egunak izango du lehentasuna.

2. KAPITULUA. ARAUTEGI OROKORRA

5. artikulua. Aplikazio esparrua

1.- Arautegi orokorra aplikatuko da inolako araubide berezirik ez duten gunen eta / edo jardueretan.

2.- Ez da distantzia-mugarik jartzen A eta B kategorietako establezimenduen artean; ez da, ezta ere, mugarik jarriko A eta B kategorietako establezimenduek C kategoriatan establezimenduekiko izan beharreko distantziaren artean. Hala ere, A edo B kategoriatan edozein establezimendu eta D kategoriatan baten artean 20 metroko tartea eskatuko da.

3.- C kategoriatan establezimenduen artean, eta horien eta D kategoriatan baten artean 20 metroko tartea eskatuko da.

4.- D kategoriatan establezimenduen artean 50 metroko tartea eskatuko da, eta tarte hori 100 metrokoa izango da, baldin establezimenduetako batek 75 pertsonatik gorako edukiera badu (suteen kontrako araudiaren arabera kalkulaturik).

	A Kategoriatan	B Kategoriatan	C Kategoriatan	D Kategoriatan
A Kategoriatan				20 m
B Kategoriatan				20 m

C Kategoria			20 m	20 m
D Kategoria	20 m	20 m	20 m	50/100 m

6. artikulua. Distantzien eta neurrien zenbaketa

1.- Lokalen arteko distantzien neurketa metodo erradialaren bidez kalkulatu da. Distantzia baztertzailak aurreko artikuluan jasotakoak dira, hain zuzen ere, jarritako establezimendu bakoitzak, bere kategoriaren arabera, instalatu nahi diren beste establezimenduekiko irradiatutakoak. Plano horizontal bakarraren gainean erradioa proiektatuta neurtuko da distantzia hori, kontuan hartu gabe lokal bakoitza zein sestratan dagoen.

2.- Bi lokalen artean hurbilen dauden puntuetatik hartuta egingo dira neurketak. Erreferentzia modura honako neurketa-puntuak hartuko dira: jarduera berrirako aurreikusitako lokalaren eta lehendik dauden hurbileneko lokalen kanpoaldeko edozein fatxada.

3.- Establezimendu bateko kanpoko fatxadatzat hartuko da eraikinaren berezko fatxada, lokalaren barruko perimetroarekin mugakide dena eta kale batera edo erabilera publikoko espazio batera ematen duena.

7. artikulua. Berrikuntzak, handitzeak eta banaketak

1.- Ondorengo kasuetan ez da distantzien arautegia aplikatuko:

- a. Titulartasun aldaketak.
- b. Lokal eta establezimenduak berritzea, baldin eta jatorrizko lokalaren azalera eraikia handitzen ez bada; ezta jarduera aldaketak egitea ere, baldin eragozpen gutxiago sortzeko arriskua duen beheagoko kategoria batera pasatzeko badira (Ctik Bra; Dtik Cra...) edo, gaueko ordutegian eragin bera edo txikiagoa duen kategoria bereko beste batera pasatzen badira.
- c. Elkarren ondoan dauden kategoria bereko edo kategoria desberdineko bi lokal edo gehiago elkartzea, baldin jardueraren kategoria igotzen ez bada edo elkartu aurretik edozein jarduerak gaueko ordutegian zuen eragina handitzen ez bada.
- d. Edozein jarduera handitzea, ondorengo baldintzak betez gero:
 - I. Gehitutako azalerak ez dezala gainditu handitu nahi den lokalaren azaleraren % 20a, eta handiagotze horren ondorioz lokalerako zerbitzuak (biltegia, komunak...) sortu edo hobetu daitezela eta / edo indarrean dagoen legedira egokitzekoak izan daitezela (irigarritasuna, erabilera-segurtasuna, suteen kontrako segurtasuna...). Ez da onartuko bata bestearen atzetik handitzeak egitea.
 - II. Handitzeak ez dezala jendearentzako azalera erabilgarria handitu.

- III. Jatorrizko jardueraren eta handitutako zatiaren artean etengabeko komunikazioa egon dadila, eta ez daitezela, beraz, titulartasun desberdineko lokalak edo funtzionamendu autonomo eta askea dutenak sortu.
- IV. Handitzearekin ez dadila kategoriaren sailkapenean igo edo, kategoria berarekin jarraitu arren, gaueko ordutegian eragin handiagoa duen batera aldatu.

2.- Distantzien arautegia aplikatuko da, ordenantza honekin lotutako jarduera askea jartzeko asmoarekin, ordenantzaren mendeko jardueren lokaletan egindako zatiketetan edo gela eta sekzio banaketetan.

8. artikulua. Distantzia-mugen salbuespenak kasu berezietan

1.- Desjabetzeen eta hirigintza jarduketan ondorioz ordenantza honen esparruan sartutako jarduerak dituzten eraikinak eraitsi behar badira, Udalak baimena eman ahalko du A, B eta C kategorietan sartutako establezimendu berri bat jartzeko jarduketa-esparru berean.

2.- Era berean, jarduketa pribatuetan, eraikinen aurri deklarazioen edo eraispenen ondorioz, jarduerak iraungitzen badira, Udalak baimena eman ahalko du aurreko atalean adierazitako kategorietako establezimendu berriak jartzeko, partzela edo orube horretan bertan egiten den eraikinean.

3.- Aurreko kasu horietan, jardueraren edo eragindako lokalaren titularrak egin beharko du lizentzia eskaera, eta horretarako gehienez honako epeak izango ditu. Epe horiek pasatuz gero, jarduera berriz jartzeko eskubidea galduko da:

- a. Hirigintzako jarduketa-esparru berean eraikiko den eraikinean kokatu behar bada, urtebeteko epea, obra bukaerako ziurtagiriaren egunetik kontatzen hasita.
- b. Partzela edo orube berean eraiki behar den eraikin batean kokatu behar bada, urtebeteko epea, obra bukaerako ziurtagiriaren egunetik kontatzen hasita, eta, dena den, eraikina eraitsi zenetik gehienez lau urtera.

4.- Artikulu honetan arautzen diren birkokatze aukerak ez dira aplikatuko birmoldatze area eta lokal-kopuru handiko area modura kalifikatutako zonetan.

3. KAPITULUA. ARAUTEGI BEREZIAK

9. artikulua. Birmoldatze-zonetako edo areetako arautegi berezia

1.- Birmoldatze-area gisa kalifikatutakoei artikulu honetan aurreikusitako arautegi berezia aplikatuko zaie. Birmoldatzen ari diren areetan, hiri antolamenduaren plan orokorrak aukera ematen du bizitegitarako ez den erabilera orokorreko area baten kalifikazioa (ekoizpena, hirugarren sektorea...) aldatu eta bizitegitarako beste erabilera bat emateko.

2.- Birmoldatze-areetan dauden eraikinetan, antolamendu xehatua behin betikoz onartu bitartean, ez da baimenik emango ordenantza honetan araututako inolako jarduerarik jartzeko, ezta behin-behineko erabilera edo obra modura ere. Antolamendu xehatua onartu eta gero, 2. kapituluan (arautegi orokorra) aurreikusitakoak aplikatuko zaizkie eraikin berriei eta antolamendutik kanpoko deklaraziorik jaso ez duten eraikinei.

3.- Birmoldatze-areen deklarazioa jasotzeko, aurrez, udal ordenantzak onartu edo aldatzeko prozedura izapidetuko da. Espedientea ofizioz hasiko da, aurretik txosten tekniko arrazoitua eginda.

10. artikulua. Lokal-kopuru handiko gunetako arautegi berezia

1.- Lokal-kopuru handiko gune gisa kalifikatutako areei artikulua honetan aurreikusitako arautegi berezia aplikatuko zaie. Gune horietan establezimendu asko egoteaz gain, kaleen eta plazen konfigurazioak eta dimentsioak halakoak izanda, ezinezkoa izaten da lokalek eta haien erabiltzaileek sortutako zarata eta usainen ondorio gehigarriak ohiko neurri zuzentzaileekin konpontzea.

2.- Lokal-kopuru handiko guneen deklarazioa jasotzeko, aurrez, udal ordenantzak onartu edo aldatzeko prozedura izapidetuko da. Espedientea ofizioz edo edozein interesdunek hala eskatuta hasiko da. Edonola ere, deklarazio hori bidezkoa dela frogatzeko txosten tekniko arrazoitua egitea beharrezkoa izango da.

3.- Lokal-kopuru handiko area edo gunetan ezin izango da ordenantza honetan araututako jarduera berririk jarri.

4.- Lokal-kopuru handiko area edo gunetan, berrikuntzei, handitzei eta banaketei buruzko arautegi orokorra aplikatuko da (ordenantzaren 7. artikulua)

11. artikulua. Itsasertzeko pasealekuko zonaren arautegi berezia

1.- Itsasertzeko pasealekuaren zonari artikulua honetan aurreikusitako arautegi berezia aplikatuko zaio. Zona horretan sartzen dira Itsasertzeko pasealekura ematen duten lokal guztiak eta sarrera bertatik dutenak, honakoak izan ezik: lokal-kopuru handiko deklarazioa egin duten areetan daudenak edo birmoldatze-zonetan daudenak. Horiei, bakoitzari dagokion arautegi berezia aplikatuko zaie.

2.- Zona honetan 2. kapituluko arautegi orokorra aplikatu da. Salbuespen bakarra izango da C kategoriako establezimenduen artean ez dela distantzia mugarik jartzen.

12. artikulua. Ekipamendu erabileren eta beste jarduera nagusi baten erabilera osagarrien arautegi berezia

1.- Artikulu honetako arautegi berezia 3. artikuluan definitutako jarduerari aplikatuko zaie, baldin eta berez zuzkidura edo ekipamendu erabileraren kalifikazioa jaso badezakete, edo

ekipamenduzko edo hirugarren sektoreko jarduera nagusiari laguntzeko erabilera osagarriak badira.

2.- Ekipamendu erabilera gisa edo ekipamenduzko edo hirugarren sektoreko jarduera nagusiari laguntzeko erabilera osagarri gisa deklaraturako establezimenduei, dauden tokian egonda ere, ez zaizkie ordenantza honetan aurreikusitako distantziak aplikatuko.

3.- Establezimendu bat hirugarren sektoreko edo ekipamendu komunitarioko erabilera duen eraikin edo lokal osagarri modura erabili ahal izateko, beharrezkoa izango da establezimendu hori erabilera nagusia egiten den eraikin edo lokal eta jardueran funtzionalki sartuta egotea. Funtzionalki sartuta egoteko, gutxienez, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a. Hirugarren sektoreko edo ekipamenduko erabilera nagusiaren osagarri izan dadila argi eta garbi, eta autonomoki funtzionatzeko aukerarik ez dezala izan.
- b. Erabilera osagarriaren eta nagusiaren artean komunikazioko espazioak egotea.
- c. Sarrera bakarra eraikin barrutik izatea, eta bide publikotik zuzeneko sarbiderik ez izatea.
- d. Erabilera nagusiaren funtzionamendu arauak jarraituko dira, batez ere, ireki eta ixteko ordutegiari buruzkoak.

4.- Hotel, zinema, antzerki edo antzeko erabilera duten eraikinek, eta titulartasun publikoko ekipamendukoek ostalaritzako jarduera osagarria eduki ahalko dute bide publikotik zuzenean sartzeko aukerarekin, baldin eta aurreko ataleko a. letrako baldintza betetzen badute. Salbuespen honetatik, berariaz, kanpo gelditzen dira D kategoriako jarduerak; lokal-kopuru handiko guneetan ere ezingo da salbuespena aplikatu.

5.- Distantzien arauen aplikazioan salbuespena egin ahal izateko, jarduerak, aurretik, erabilera osagarriaren kalifikazioa jaso behar du. Kalifikazioa ofizioz edo interesdunak eskatuta egingo da. Jarduera bati erabilera osagarriaren kalifikazioa ematen dion ebazpenean, zehazki adieraziko dira zein baldintza –ordutegiak barne– bete behar diren erabilera hori erabilera nagusiarekin funtzionalki ondo integratzeko, eta ordenantza honen bidez baztertu nahi diren ondorio gehigarriak ez direla gertatuko bermatzeko.

6.- Artikulu honetan aurreikusitako salbuespena ez zaie aplikatuko zerbitzu osagarri gisa 3. artikuluan adierazitako eta kategoriatan sailkatutako jardueraren bat duten jolas-aretoei.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Birmoldatze-areak

Birmoldatze-areatzat hartuko da Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko ondorengo area, harik eta behin betiko onartutako antolamendu xehatuko tresnaren bat izan arte, eta hortaz, 16 hirigintza area –OR Hegoalde– ordenantza honetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

Bigarrena. Lokal-kopuru handiko zonak

Lokal-kopuru handiko zonatzat hartuko dira ondorengo guneak, eta hortaz, ordenantza honetako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dira:

- a. Bixkonde kalea, Nafarroa kalea eta aldamenekoak. Ondorengo perimetroak mugatutako kaleetatik eta espazio publikoetatik sarrera duten lokalak izango dira:
 - I. Hegoaldean, Nafarroa kaleko galtzadaren erdiko ardatza; iparraldean, Munoa begiratokia eta Itsasertzeko pasealekua; ekialdean, Bañeru kalea, Nafarroa kalearekin –galtzadaren erdiko ardatza– bat egin arte; eta mendebaldean, Amezti kalea, Nafarroa kalearekin –galtzadaren erdiko ardatza– bat egin arte.
 - II. Irteera edo sarrera Nafarroa kalera duten lokalak (mendebaldean Ipar kalearekin, eta ekialdean Azara kalearekin bat egin arteko tartean); Ipar kalea (Nafarroa eta Trinitade kaleen artean); Azara kalea (Nafarroa eta Trinitade kaleen artean).
- b. Barren plaza eta aldamenekoak. Irteera edo sarrera Barren plazara, Patxiku kalera eta Kiriki kalera duten lokalak.

Hirugarrena. Ordutegi murriztuko tabernak

Alkohol-dun edariak zerbitzeko baimena duten establezimenduak, baina Udalak, distantzia erregimenetik salbuetsita, 8:00 eta 22:00 arteko ordutegian aritzeko baimendu zituenak, ordutegi horrekin jardungo dute Udalak berariaz, bestelakorik erabakitzen ez duen bitartean.

Ondorengoak dira ordutegi murriztua duten tabernak:

- Barren plaza 1. Napar Zahar.
- Bixkonde kalea 2/ Ipar kalea 16. Tidore.
- Gipuzkoa kalea 13. Sanz Enea.
- Gipuzkoa kalea 62. Onea
- Ipar kalea 3. Lukas taberna.
- Kale Nagusia 19. JA.
- Lege Zaharren 3. Mauka.
- Lege Zaharren 6. Onea.
- Martiñene Plaza 1. Sebas Vinoteca.
- Patxiku kalea 5. Noiz Bait.
- Trinitade kalea 5. Enoteka Gotzon.
- Zelai Ondo 23. Iluntze.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean sartzea

Ordenantza indarrean sartzeko, bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. Indarrean sartu ondoren, egiten diren lizentzia eta talde aldaketa eskaera guztiei aplikatuko zaie, eta, gainera, ordezkatu eta indarrik gabe lagako du, PERTSONAK ZARATATIK ETA BIBRAZIOETATIK BABESTEKO UDAL ORDENANTZako 20. artikuluan, distantziei buruz jasotako araudia.

DATUAK

Hasierako onespena	2010eko azaroaren 24an
GAOn iragarkia:	2010eko abenduaren 10ean (235 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2011ko urtarrilaren 18an
Behin betiko onespena	2011ko otsailaren 23an
GAOn testua:	2011ko martxoaren 4an (43 zk.)
Indarrean:	2011ko martxoaren 23an

ALDAKETA 2019

Hasierako onespena	2019ko urtarrilaren 31n (01 akta)
GAOn iragarkia:	2019ko otsailaren 18an (33 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2019ko apirilaren 2an
Behin betiko onespena	2019ko apirilaren 25ean (06 akta)
GAOn testua:	2019ko maiatzaren 9an (85 zk.)
Indarrean:	2019ko maiatzaren 31n